

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen 2016ko uztailaren 12ko dekretua, Hirigintzaren, Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Arloko koordinatzaile nagusiari ordezkotzan uzteko Ogasun Sailari eta Hirigintza Sailari atxikitako udal langileen zuzendaritza gorena eta koordinazioa, Udalaren ondarea kudeatzeko eta besterentzeko prozedurei dagokienean

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aintzat hartu da, Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legean emandako idazketan, baita Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoa ere.

Udal-gobernuaren eta -administrazioaren egungo antolakuntza aintzat harturik, eta kontuan izanik Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 124. artikulua ezartzen dituela alkatearen zereginak, eta orobat aitortzen horietako batzuk dekretu bidez zuzendaritza-langile lokalen esku uzteko ahalmena, besteak beste udal-gobernuaren ekintzaren ildo nagusiak ezartzea eta udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza.

Ikusirik Ogasun Sailari eta Hirigintza Sailari atxikitako udal langileen jarduerak koordinatu beharra dagoela, batera esku hartu behar dutenean Udalaren ondarea kudeatzeko eta besterentzeko prozeduretan, eta sail horiek gobernu-arlo desberdinen barruan daudenez, honako hau

Xedatu dut:

Hirigintzaren, Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Arloko koordinatzaile nagusiari ordezkotzan uztea Ogasun Sailari eta Hirigintza Sailari atxikitako udal langileen zuzendaritza gorena eta koordinazioa, indarrean dagoen araudiaren ildotik Udalaren ondarea kudeatzeko eta besterentzeko prozeduretan esku hartu beharra egokitzen zaienean.

Azken xedapena: Dataren egunean jarriko da indarrean dekretu hau, ALHAOn eta udalaren web-orrian zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 12an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE